

ELKARTEAK

Proiektu hau gure taldeak bakarrik aurrera eramatea ezinezkoa denez, ezinbestekoa izango da beste enpresa edo zerbitzuen laguntza. Txiparen salmentaraino iristea posible izan dadin, laguntza honetaz baliatuko gara produktua hornitu, banatu eta saldu ahal izateko. Enpresaren xedea osotasunean aurrera eramateko, hauetaz gain, beste konpainia batzuekin kontaktatuko dugu.

Hasteko, taldearen lokal propioa beharko dugu, bertan, hornitzaileek ekartzen dizkiguten guk diseinatutako txipak gorde eta bezeroekin kontaktuan jarri ahal izateko. Lokal hau gure herriko UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) agentziak alokatuko digu. Hauek, ekintzaile berriei erraztasunak jarri eta hilean 30 euroren truke argi indarra, gasa, interneta, ura eta alokairua eskaintzen dute.



Gainera, gure produktuaren distribuzioa ahalbidetzeko SEUR konpainiarekin kontaktatuko dugu, estatuko garraio enpresa garrantzitsuena delako. Txipen garraioaz arduratuko da, hilabetero gure produktua Espainiako herrialdetara zabalduz.



Txipez beteriko kamioi hauek Espainia osoko hiriburuetako elektronika denda lokaletara iritsiko dira. Denda hauekin, proiektuaren prozesu guztian zehar aliantza bat izango dugu; gure produktuaren publizitatea egiteaz gain, txipak beraien produktuekin promozionatu eta txipak bakarka erosteko ere aukera emango dute. Gure helburua denda lokalei produktu berri bat saltzeko aukera ematea da.

Bestalde, JMA giltza enpresarekin elkartuko gara, gure txipak beraien giltzetakoan txertatuta saltzeko proposamenarekin. Fabrikatzen dituzten etxeko giltzekin batera joango da txipa, beraien bezeroei giltzarekin txipa eskainiz. Horrela, gure salmentak igo eta bezero gehiagora iritsiko gara. Bezero hauek jende gaztea izatea estimatzen da, izan ere, enpresa honek etxebizitza berri askotarako milaka giltza produzitzen ditu; horregatik, gure bezeroen perfil nagusia hau izango dela uste dugu.



Azkenik, gure txiparen aplikazioa garatzeko, *Urretxu-Zumarraga Lizeoa* ikastetxeko batxilergoko teknologia ikasgaiko ikasle eta irakasleekin kontaktuan jarriko gara, hauek Aitor Sarriegiren laguntzaz (Lizeoko zuzendaria eta teknologia klaseko irakaslea) teknologia klaseetan aplikazioa sortu eta garatuko dute.

